



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2020ko iraila · 367. alea

TOKIKOM

**KALETIK
MENDIRA**





PIL-PILEAN 367

2020ko iraila

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Bittor Murguzur Santos
 - 6 **Begira** Gauza handia
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Udako Argazki Lehiaketa
 - 18 **Erreportajea** Kaletik mendira
 - 24 **Kirola** Denboraldi hasiera
 - 25 **Kultura** Bertso tailerra
 - 27 **Nondik nora** Arantza Salterain
 - 28 **Sakonean** Amazigak
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Axlor Elortza Eizagirre *Udazkena, berriz*
 - 16 **Gutunak** *Herrian talde feminista sortzeko ekimena.*
 - 16 **Hausnarketa** Zer da betetzeko zailena normaltasun berritik?
 - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Egia Absolutua*
 - 17 **Puntua** Oinatze Silbeti *Aurrean izango naute*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Udazkena, berriz



AXLOR ELORTZA EIZAGIRRE

2020ko irailak 22, 15:31, udazkeneko ekinokzioa. Sartu gara udazkenean. Eguna nabarmen moztzen den urte sasoia da, giroa berotik epelera aldatu eta azkenean kipulen moduan janztera eramango gaituena. Zuhaitzak, gure alderantziz, hostoak lehortuta, biluzi egingo dira.

Amalurrak eguzkiari bira osoa ematen dion denborari deritzogu urtea; bitarte horretan eguzkiarekiko gertutasunak markatuko dizkigu urtaroak. Urtero errepikatuz; zikloak betez. Ilargiak bere 13 zikloak beteko ditu bitarte horretan, munduaren bueltan. Ziklorik garbiena, ordea, egunek eta gauek emango digute. Ezin ukatu ziklo horien menpe bizi garenik.

Alabaina, sasoi batean naturak markatutako ziklo horiei gehiago erreparatzen genielako ustea dut. Marrubiak udaberrian jaten ziren, tomateak, udan. Orain, nahi izanez gero, Gabonetako afarian ere jan ditzakegu. Ilargiari erreparatzen genion ilea mozteko, egurra lantzeko edo sagardoa egiteko. Naturaren parte izango ez bagina bezala, naturaren zaintzaile bakar izendatzen garen garaiotan naturatik gero eta urrunago bizi gara. Hau da hau marka!

Koronabirusa delako hori ere etorri zaigu bisitan; orain ziklo naturalei kasu gutxiago egiten diegu. Hain azkar bizi gara ezen ez dugu astirik horretarako, ez eta gure benetako izatearekin bat egiteko ere. Eta zerbaitek nire barruan esaten dit bizilagun berri honen agerraldiak baduela zerikusia kontraesan horrekin.

Gizarteak ere ba omen ditu zikloak. Ikasi ditugu aurreko mendeetako krisiak. 100 urtero izaten ei da pandemiaren bat, adibidez. Eta neure buruari galdetzen diot: gure belaunaldiaren udako ekaitza ote da ba bizi dugun krisi-garai hau? Ala udazkenetik negura goaz? Egoera honek emango dio buelta noizbait, ziklo guztiak lez. Baina egin dezagun zerbaite bitartean. Benetako udazkenean eroritako hostoen modura, hosto hauek ondoren datozenen ongarri diren modura...

Naturaren baitan gaudela onartu, eta ea asmatzen dugun negu honetatik udaberri bizi batean esnatzen, erosotasuna eta indiferentziak lortu baitute gu denak lokartzea. Ez dezagun ahaztu nondik gatozen.

**EGOERA HONEK
EMANGO DIO BUELTA
NOIZBAIT, BAINA EGIN
DEZAGUN ZERBAIT
BITARTEAN**

“Soraluzen, baimen barik, ezin da hegan egin”

BITTOR MURGUZUR SANTOS NEBI AIR AIRE OPERATZAILEA

UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Bittor Murguzur Santos (Eibar, 1987), NeBI AIR Aire Operatzailea enpresaren sortzailea da. Droneak lan-tresna moduan erabilia, bideoak zein argazkiak ateratzeko eta azpiegituraren ikuskapenak egiteko enpresa sortu du, uztailean. Nerea eta Bittor izenetatik dator aire operatzailearen izena.

NeBI AIR sortzeko, droneak pilotatzen jakin beharra dago? Bai. RPASko edo droneetako pilotu aurreratua naiz. Oso zorrotz dago dena araututa, aeronautikako legeekin. Eta egiten dizkiguten azterketa medikuak helikoptero txikien edo abioneten pilotuei egiten dizkieten berberak dira, LAPL (Licencia de Piloto de Aeronave Ligera). Espainian 5.000 bat pilotu ofizial gaude, gehi piratak (barre). NeBI AIR-en ni pilotu bakarra naiz, momentuz.

Zelatan sortu zenuen NeBI AIR? Droneak zaletasun nituen. 3-4 urte daramatzat pilotatzen eta orain dela urtebete naiz pilotu tituluduna. Hainbat lekutatik youtuben argitaratuta nituen irudiak eskatzen hasi zitzaizkidan (Alecoop enpresa, Txipiroi Swing itsas trabesiakoek, EITBtik, Cuatrotik...). Erabaki nuen enpresa sortzea, halako kontuak kobratu ahal izateko. Nire droneak pixka bat garestiak dira, profesionalak, eta horrez gain, aseguru gastuak daude, bateriak berriztu beharra, irudietako filtroak, matxurak, kraskadurak... Hori guztia mantentzea garestia da.

4 urteotan zein lan egin duzu? Parajeen bideoak, batez ere: Deba, Mutriku, Getaria... Argazki batzuk ere bai. Eraikinen eta azpiegituren ikuskaritzetarako bideoekin eta argazkiekin, berriz, orain hasi naiz. Irudiekin gordinean lan egiten dut, batik bat; edizio apur bat ere landu dut, baina muntaia handiagoa behar bada (elkarrizketak egin...) ikus-entzunezko beste enpresa batekin osatzen dut lana.

Soraluzeko parrokiaren grabazioaz gain, herrian besterik grabatu duzu? Ez, Soraluzen ezin da hegan egin, Bilboko CTR barruan dago eta (Kontrolatutako Aire Espazioa). Hemendik hegazkinak pasatzen dira Bilboko aireportura bidean. Horren ondorioz, Soraluzen hegan egin ahal izateko, droneen pilotu

(operadore) izateaz gain, radiofonista izan behar da (aireportuarekin berba egiteko), homologazio berezia behar da (segurtasun azterketa, paraxuta jarri droneari...) eta aireportuarekin koordinatu behar da. Elorregitik Azpeitiraino marra bat egin eta korridore barruko udalerriak CTR barruan daude: Bergara, Soraluze, Elgoibar, Eibar, Ermua, ... Hor baimen barik aireratzuz gero, 6.000 eurotik 240.000 eurora bitarteko isuna jaso daiteke. Enaire drones aplikazioan ikusten da non ezin den hegan egin. Kontrolatutako Aire Espazioetan hegan egiteko, droneak homologatzea bakarrik falta zait. Egingo dut, hemen ere grabatzeko. Parrokian grabatu ahal izan nuen sabaipen ibili nintzelako. Leku itxietan, jenderik ez badago, aireratu ahal da.

Jostailuzko drone bat ezin daiteke Soraluzen erabili? Ez. Jendeak hori ez daki. Adibidez, drone batekin jende gainetik pasatzea debekatuta dago. Herri barruetan erabili ahal diren droneak 250 gramotik beherakoak dira, eta asko jota, 20 metro altu hegan egiten dutenak. Baina Soraluzen ezin da, baldin eta ez bazara operadore homologatua. Herrietatik eta CTRtik kampo berriz, mendian, libre bai. Hori bai, parke naturaletan-eta baimen barik aireratzea eta grabatzea debekatuta dago: Aizkorri, Gorbea, Urdaibai... Nik Arantzazuko, Atxorrotzeko... bideoak ditut, baina foru aldundiaren basozainen baimenarekin eta koordinazioarekin egin dut hegan. **Izatez, osasun arloko profesionala zara, ezta?** Bai. Gipuzkoako Anbulantziak enpresan, osasun emergentzietako teknikari. Osakidetza larrialdiarako egiten dut lan, Debagoienean. Hiru anbulantzia mota daude: oinarrizko bizi euskarria, aurreratutako bizi euskarria (ZIU mugikorra), eta garraio-lanak egitekoa. Nik oinarrizko bizi euskarrian egiten dut lan; bi teknikari joaten gara, eta batek (nik) gidari funtzioa dut. 18 urterekin hasi nintzen Elgoibarko, Gurutze Gorrian teknikari. 15 urte daramat lan horretan.

Horretan jarraitu nahi duzu? Bai, nire pasioa da. Droneak eta aeronautika oso gustuko ditut, baina bokazioa dut osasun arloan, etxean betidanik zurrupatu dut hori.



Gauza handia

ARGAZKIA: KRISTINA GALLASTEGI

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Hamaika ikusteko jaio ginen, eta hau ere ikusi dugu: Plazentziako zubiaren irudia Madrilgo Gran Vian; ia-ia zubiaren neurriko kartelean, alajaina. Patriaren inguruan dena baita handia: liburuaren salmentak, produktorea, aurrekontua, promozioa, estreinuaren aurretiko polemika... Asteburu honetan hasita emitituko dute telesaila eta emititu ostean, zarata mediatikoa itzaliko da eta gure herri txikiak lehengo martxan jarraituko du, bere bertute eta miseriekin. Dena den, euskal gatazka lantzen duen telesail entzutetsu hori hemen grabatu izanak eman lezake aitzakia polita gure herrian hain beharrezkoa litzatekeen elkarbizitza egitasmo bat garatzeko. Eta hori gure herri txikiarendako gauza handia litzateke, ez duzue uste?







Antolaketa batzordeko eta aurreko edizioiko zenbait parte hartzaile Santa Anako lokalean. FERNAN OREGI

Izen-ematea zabalik

Zabalik dago Euskaradiaren bigarren edizioan izena emateko aukera. Euskaraldia.eus webgunean sartuta edo aurrez aurre, Santa Anako lokalera joanda, eman daiteke izena.

Udazkenarekin batera, herritarren hizkuntza ohiturak aldatu nahi dituen ariketa erraldoia abiatuko da Sorluzen eta Euskal Herri osoan: Euskaraldia. Egoera berezia den arren, Euskaraldiaren antolatzaileek, Euskaltzaleen Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak, aurrera egitea erabaki dute, "pandemia garaian ere, euskararen erabilera sozialaren gaia erdigunera ekartzea beharrezkoa" dela iritzita.

Sorluzen, Pil-pileanek, Udalak eta hainbat boluntariok osatu dute antolaketa batzordea eta datozen asteetan informazioa zabaldu eta izen-ematea bideratuko dute.

Metodologia berbera: Belarriprest eta Ahobizi

Bigarren edizio honetan erabiliko den metodologia, 2018an erabili zen berbera da: herritarrek Belarriprest eta Ahobizi moduan eman ahalko dute izena eta ariketak irauten duen bitartean, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, hamabost egunez (lehen edizioan baino lau egun gehiagoz), herritar bakoitzak aukeratu duen rolari dagokion txapa eroango du paparrean. Izena eman ahal izateko, gutxieneko baldintza izango da euskara ulertzeko gai izatea, bestela ezinezkoa baita bi roletako bakar bat ere bete ahal izatea. Horrez gain,

oraingoan ere, 16 urtetik gorako herritarrek bakarrik eman ahalko dute izena.

Izen-ematea webgunean edo aurrez aurre

Aurten, osasun egoera dela eta, antolatzaileek izena digitalki emateko aukera hobetsi dute eta horretarako Euskaraldia.eus webgunean sartu behar da eta bertan datuak bete (dagoeneko zabalik dago). Datozen egunetan, aurreko edizioan parte hartu zuten herritarrek mezu bat jasoko dute posta elektronikoa eta bertan agertuko den loturan klik eginda, eman ahalko dute izena, datuak berriro sartu beharrik izan gabe. Gainera, rola edo daturen bat aldatzeko aukera ere eskainiko du.

Izena aurrez aurre eman nahi duten soraluzetarrek

**URRIAREN 6AN,
ENTITATEAK
INFORMATZEKO SAIO
BEREZIA EGINGO DA
ANTZOKIAN**



Sata Anako lokalean izena eman eta txapak jaso ahalko dira. FERNAN OREGI.

Euskaraldiko batzordeak Santa Ana kalean zabaldu duen lokalera jo beharko dute. Hasierako hiru asteotan, lokala ostegun eta ostiraletan zabalduko dute, arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara. Aurrerago, asteko egun gehiagotan eta ordutegi zabalagoan irekiko dute lokala, besteak beste, azaroan, izena eman duten herritar guztiek bertan jasoko dituztelako txapak.

Entitateetan 'Ariguneak'

Aurtengo edizioan, norbanakoez gain, entitateek ere eman ahalko dute izena, Euskaraldia datorrenean, ariketa euren langile edo kideen artean, edota bezeroekin egin ahalko izateko. Horretarako, Ariguneak izendatu ahalko dituzte, gune horretan euskaraz lasai egin ahalko dela adieraziko dutenak.

Herrian dagoeneko 25 entitatek eman dute izena, gehienak komertzioak. Batzordetik azaldu dutenez, osasun egoera dela eta entitateei egin beharreko aurkezpenak atzeratu egin dira

eta enpresa batzuetara bisitak egin dituzten arren, komertzioak lehenetsi dituzte. Horrela, entitateen izen-emate ofiziala irailaren 27an amaituko bada ere, datozen asteetan, batzordeko boluntarioek informazioa zabalitzen jarraituko dute, batez ere, lantegietan eta kirol eta kultur elkarreetan. Horren harira, urriaren 8an, eguena, arratsaldeko 18:30ean, entitateei zuzendutako informazio saioa eskainiko dute antzokian.

Boluntarioak behar dira

Batzordeak dei egin nahi die herriko euskalzaletzi, antolaketan laguntzera. Laguntza beharko da, batez ere, lokalean eta kaleko mahaian txandak betetzeko. Laguntza eman nahi duten herritarrek 605706086 telefonoan eman dezakete izena.

Baso elkarteak eratzte bidean

Irailaren 17an, hainbat naturazalek batzarra egin zuten Gaztetxean bertako basoa sustatuko duen elkarteak eratzteaz berba egiteko. Naturazaleek erabaki zuten datozen asteetan elkarteak legalki eratztea eta hori egin ostean ekintzak antolatu, bazkideak egin eta finantziarioa bilatzeari ekitea. Datorren astean bilduko dira berriz.

Talde feminista sortzeko bilera

Herriko zenbait emakumek talde feminista berria sortzeko asmoz, bilera antolatu irailaren 30ean, eguaztenean, Gaztetxean. Bilera arratsaldeko 18:30ean hasiko da. Deitzaileek adierazi dutenez "hausnarketa eta eztabaidarako gune aberasgarria" sortu nahi dute, "kolektibotasuna eta zaintza" oinarri izango dituenak.

Eskailerak bukatzeaz

Plaentxi Eskolarako patioarako eskailerak bukatzeaz dira. Bukatzeko falta da hormigoizko eskailerak estaliko dituen zoladura prefabrikatua eta baranda jartzea. Datozen egunotan hasiko dira materialok ipintzen eta urriaren erdialderako eskailerak erabilgarri izango direla aurreikusiko dute.

Itxaropenarako kudeatzaile bila

Itxaropena Erretiratuen Elkarteko tabernarako kudeatzaile berria aukeratzeko lehiaketa deituko du Udalak, presazko izaerarekin


Irailaren 14an, itxi zuten Itxaropena Erretirauen Elkarteko taberna. Zerbitzuaren kudeatzaileak, arrazoi pertsonalak tarteko, hura kudeatzeri laga zion, alde z aurretik Udalari jakinarazita.

Orain, Udalak Itxaropenako taberna ustiatzeko baldintza-pleguak onartu, eta datozen egunotan lehiaketa deituko du, prozedurari presazko izaera emanaz, “ematen den zerbitzua kaltetua izan ez dadin”.

Orain, kanonik ez

Baldintza-pleguen arabera, interesa duen edozein “persona fisiko edo juridiko” aurkez daiteke lehiaketara, bertakoa izan zein atzerritarra izan.

Taberna kudeatzeagatik, hilero, 100 euro ordaindu beharko zaizkio Udalari, baina



Igor Gomez Itxaropenako tabernan.

COVID-19arengatik ostalaritzako jardueri ezarritako mugek indarrean jarraitzen duten bitartean, kanon hori ez da ordaindu beharko.

Bestelako baldintzen artean, taberna egunero egon beharko

da zabalik, zerbitzu publikoa baita; euskararen B2 gaitasun maila egiaztatu beharko da eta, besteak beste, tabernan egingo diren lanak azaltzen dituen memoria txiki bat aurkeztu beharko da.

Bestalde, lan-esperientzia baloratuko dute, familia-kargak eta zerbitzua hobetzeko proposamenak ere.

Eskaintza ekonomikoetarako dagokienez, berriz, ez dute onartuko Udalak ezarritako kanonaren azpikorik, ezta hilero 150 euro baino gehiagokorik ere.

Asko jota, hamar urte

Lau urteko kontratua eskaintzen du Udalak, urtero luzatzeko aukerarekin, gehienez jota, hamar urte egin arte.

Eskaintzak aurkezteko honako bideak daude: udaletxeko harreran, Udal web-orrian, postaz, faxez edo telefaxez.

Lizitazioaren iragarkia gaur, barikua, irailaren 25a, argitaratuko dute Udalaren webgunean. Hura argitaratu eta 15 laneguneko epea izango da eskaintzak aurkezteko.



Amari ekimena, abian, arrakastaz

Abiatu du ikasturtea Amari proiektuak, bertan parte hartzeko itxaron zerrenda eta guzti. Astelehenetan eta eguaztenetan dituzte saioak. Gainera, eguaztenetako saioak on-line jarraitzeko aukera ere izango da. Telematikak partaidetza mugarik ez duenez, on-line saioak jende gehiagorentzat zabaltzeko aukera aztertzen ari dira.

"Batik bat, langileak behar dira"

LOURDES LETONA ETA ANA ZUBIAURRE MEDIKUAK

Osasun arloko sindikatu guztiek deituta, protestan hasi dira osasun profesional asko. Anbulatorioko Lourdes Letona eta Ana Zubiaurre medikuek azaldu dituzte arrazoiak.

Agintariek diote ez dela mobilizatzeke une aproposa.

Eurentzat sekula ez da une aproposa. Orain bizpahiru urte grebak egin genituen. Honakoak salatu genituen: baliabide gabezia, lehen mailako arretako aurrekontu jaitsiera, ordezkorik eza, belaunaldi aldaketa ziurtatzeko MIR plazarik deitu ez izana... Ez ziguten kasurik egin. Egoerak okerrera egin du eta aurten bajak ez dira betetzen ari, baja luzeak ere ez. Adibidez, Soralezuko egoitzako medikua uztailetik bajaran dago eta ez dute ordezkorik ipini. Gu ari gara haiei arreta ematen.

Zer da beharrezkoena?

Langileak, batik bat lehen mailan eta pediatrian. Pediatrian egoera oso serioa da. Sasoi batean helburua familia-medikuek umeen azterketa arruntak egitea zen eta espezialista beharra balute ospitaletara bidaltzea. Pediatrik formatzeari laga zioten.

"MEDIKU ASKO DAUDE LAN EGIN EZINEAN, EZ DITUZTELAKO NAHIKOA BAME (MIR) HAUTAKETA PROBA SORTU"



Zubiaurre eta Letona anbulatorioan.

Ikusi zutenean helburua ez zela bideragarria, beranduegi zen; orain ez dago nahikoa pediatria. **Zelan ikusten duzue egoera?** Bigarren olatua urrirako aurreikusten zen, eta begira. Egoera gogor batetik gentozen, konfinamenduan %120a eman genuen, nekatuta gaude, ez dugu atsedunik izan eta ez dute ordezkorik ipintzen. Bestalde, arreta telefonikoak lana handitzea ekarri du. Kontsulta gehiago daude eta herritar asko aurrez aurre ere ikusten ditugu; beraz, kontsulta bikoiztu egiten da.

Edozelan ere, hau urte askotako aurreikuspen faltaren ondorioa da. Ez dute mediku nahikoa formatu. Medikuntzan, sei urteko karreraren ondoren, BAMEn (MIR) lau urteko espezialitatea egin behar da mediku modura lan egiteko. Baina beti ez da egoten aurkezten diren mediku guztientzako plaza nahikoa. Ondorioz, mediku asko daude lan egin ezinean, nahiz eta sei urteko ikasketak bukatuta izan.

Oinarrizko Internet ikastaroa

Urriaren 21etik azaroaren 18ra, ordenagailua eta Internet erabiltzen ikasteko ikastaroa eskainiko dute Itxaropena Erretiratuen Elkartearen, bazkideei zuzenduta. Ikastaroa doan da, baina, asko jota, hamar lagunendako lekua izango da eta parte hartzeko alde zuretik izena eman beharra dago.

Horretarako hainbat bide daude: martitzenetan 11:00etatik 12:00etara, Itxaropenako bulegora bertararuta; ordutegi eta egun berean 943 75 23 30 telefonora deituta edo e-postara mezua bidalita, itxaropena5@gmail.com.

Ikastaroan ordenagailua erabiltzeko oinarrizko trebetasunak eta ordenagailuarekin modu autonomoan elkarreragiten erakutsi nahi dute. Baita Interneten nabigatzen eta Interneteko komunikazio tresna nagusiak erabiltzen ere: posta elektronikoa, medikuarenean hitzordua eskatzea, gauzak inprimatzea, prentsa irakurtzea, eta abar.

Ordenantza fiskalak eta beste

Urriaren 7an, eguaztena, osoko bilkura egingo du udalbatzarrak. Bestelako gaien artean, 2021eko Ordenantza Fiskalak (tasak eta zergak) eta Olaldeko Plan Bereziaren onespena mahai gainean izango dituzte udal ordezkariak. Azkeneko osoko bilkura joan den uztailean egin zuen, udal aurrekontu aldaketa tarteko.

"Zerbitzurik onena eman nahi dugu"

PUBLIZITATEA

MARTIN ARIZMENDI BERGARA
BERTAKO HARATEGIA

Martin Arizmendi Bergarak (Eibar, 1975) orain dela ia bi aste zabaldu zuen Bertako harategia, Zubi Nagusian, Javierren lehenagoko harategiaren lokalean.

Cárnicas Elgeta enpresak Bertako harategia izenarekin zabaldu duen laugarren harategia da Soraluzekoa.

Bertako Taldeak non gehiago ditu harategiak?

Eibarren, Bergaran, Ermuan eta orain Soraluzean.

Non duzue egoitza?

Egoitza nagusia Elgetan dugu. Ireki berri den enpresa txiki bat gara. Bertatik produktuak banatzen dizkiegu harategiei, tabernei eta jatetxeei, eta horrez gainera, gure establezimendu propioak ditugu, lau, oraingoz.

Irailaren 7an, orain dela bi aste zabaldu zenuten harategia

Soraluzen, zelako harrera izan du?

Oso ona. Jendea etorri zaigu eta pozik ikusi dugu. Jendea askok, berriz, "Javierren" harategia irekitzeko gogotsu zegoela esan digu.

Zelatan erabaki zenuten Soraluzean harategia zabaltzea?

Eibarko Bertako harategian Soraluzeako bezero asko ditugu. Horrek animatu gaitu hemengo harategia irekitzera.

Soraluzetarrei zer eskaini nahi diezue?

Haragi fresko aukera zabala, eta baita prestatutako janariak ere. Helburua da ditugun



Martin Arizmendi Bergara.

askotariko produktuekin zerbitzu onena ematea Soraluzean. Eskaintza zabala dugu. Gainera, genero aldetik noizbait zerbait falta bada, berehala ekar dezakegu gure beste harategi batetik.

Zelako ordutegia izango du Soraluzeako harategiak?

09:00etatik 13:30ak arte eta 17:00etatik 20:30ak arte. Hainbat soraluzetarrek esan digu 13:00etan eta 20:00etan irteten direla lanetik, guztiei zerbitzua emateko helburuarekin erabaki dugu ordutegi hori ezartzea. Dena den, egokitu beharra badago, egokituko dugu. Horrez gainera, aukera dago enkarguak egiteko telefonoz, honako zenbakian: 943 82 19 07; whatsapppe, beste honakoan 695 97 16 30.

Soraluzeko mendi tontorretara

Urriaren 3an, Sare Herritarrak Karakate eta Atxolinerako irteera deitu du, Euskal Herriko mendi tontorren igoera ekimenaren baitan. Hitzordua 11:00etan Karakaten izango da; bertan argazkia aterako dute eta txorizoa banatu. Izena emateko epea zabalik dago: Gaztelupe, Bolia, Arrano, Mendizabal okindegia, Edurtza eta Iratxo.



Atxolin.

Pelikularako figurante bila

Soraluzen eta inguruetan grabatzen ari diren Erase una vez...Euskadi pelikularako 16-65 urte bitarteko pertsonak behar dituzte. Lehentasuna emango diete orrazkera klasikoa (tinte gabekoa) eta tatuajerik bistan ez duten pertsonen. Castinga telematikoki egingo dute. Helbidea honakoa da: figueuskadi@gmail.com.



Udal liburutegiak ohiko ordutegiarekin dihardu lanean.

"Normaltasun" berriari lanean

Ikasturte berriarekin bat, hasi dira abiarazten Udal zerbitzuak, hori bai, "normaltasun" berriari egokitutako baldintzekin

Aste honetan zabaldu dituzte Udal ludoteka eta Udal gaztelekua, bi zerbitzuak sei hilabetez itxita egon ondoren.

Ludotekan 113 ume hasi dira (jaz 130 bat izan ziren); kopuru polita, egoera kontuan hartuta.

Gaztelekuan inoiz baino gehiago

Gaztelekuan, berriz, aurten inoiz baino gazte gehiagok eman du izena, ia 55 gaztek. Hori bai, aurten, bakarrik barikutan emango dute zerbitzua.

Kiroldegia eta liburutegia

Kiroldegia dagokionez, bertako gimnasioa lehenagotik zegoen zabalik eta irailaren 15ean, berriz, igerilekua zabaldu zuten, martxotik itxita izan ondoren. Egun horretan abiarazi zituzten baita kiroldegiko ikastaroak ere.

Ezarrirako aldaketan artean, besteak beste, igerilekuak edukiera mugatua du, bertaratzeko txanda hartu beharra dago eta 14:30etik 15:30era itxita dago, aldagelak garbitzeko.

Kiroldegiko ikastaroetan, berriz, lehendik izena emanda zutenek erabiltzaile moduan alta emanda jarraitu dute.

Azkenik, Udal liburutegiari dagokionez, udan zerbitzua baldintza ezohikoetan eskaini bazuen ere, irailaren 14az goerotik ohiko ordutegiarekin dihardu lanean: astelehenetan 16:30etik 19:30era; asteartean, asteazkenetan eta ostegunetan 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era. Ostiraletan 16:00etatik 19:00etara.

Hori bai, %60ko edukiera muga du zerbitzuak.

Mercedes Pintado Ercillak 100 urte

Irailaren 23an, 100 urte bete zituen Mercedes Pintado Ertzillanekoak. Merzedines moduan ere ezaguna, lau seme-alabak, suhi-errainak eta anaia lagun izan zituen urteurren berezian. Opari ugari jaso zituen, tartean, alkateak emandakoa eta Itxaropenako Angel Catalanek emandakoa. 100 urtetik gorako hiru soraluzetar daude gaur egun.



Uda argazkitan

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK:HERRITARRAK

Ilunabar asko, itsasoa, hondartzak... baina batez ere, paisaiak. Gai horiek dituzten argazkiak bidali dituzte herritarrek Udako Argazki Lehiaketara;


100 bat argazki, guztira. Arrantzan izeneko argazkiak jaso ditu herritarren boto gehien: 65 boto (ia 700 boto izan dira). Enara Garitano 11 urteko neskatila da haren egilea; Egotzako gazta eskuratuko du opari. Epaimahaiak, berriz, *Iluntzea*, Muskiz izeneko aukeratu du. Angel Garciarena da argazki hori eta Txurrukan bi lagunendako otordua du opari.



'Iluntzea, Muskiz' uztailen ateratakoa da; epaimahaiaren saria eskuratu du. ANGEL GARCIA



'Arakatzen', epaimahaiaren hautagaietako bat. MAIALEN OREGI





'Arrantzan'; Conillen ateratakoak Herritarren saria eskuratu du. ENARA GARITANO



'Karakate, Esne Bidea'; herritarren bigarren bozkatuena. ANGEL GARCIA



'Ibon de Estanes', herritarrek gustuko izan duten beste argazki bat. EINER OSTOLAZA



'Loroak buruan ta ibili munduan'; herritarren gustukoa. EIDER RUIZ

GUTUNAK

Talde feminista sortu nahian

HERRIAN TALDE FEMINISTA SORTZEKO EKIMENA

Besteak beste, hausnarketa eta eztabaidarako gune aberasgarria sortzeko asmotan gabiltza, kolektibotasuna eta zaintza oinarri izango dituen.

Gu bezala, halako zerbaiten gogoz bazabiltza, zatoz! Elkarrekin gune hori eraikitzen hasteko elkartuko gara irailaren 30ean, 18:30etik 19:30ak arte Gaztetxean.

Ilusioak eta gogoak mugitzen gaitu!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Zer egiten zaizu zailena?

Normaltasun berriak ekarritako aldaketen artean betetzeko zailena zein den galdetu diegu herritarrei.



LUIS ARIZNABARRETA

"Niretzat zailena jendearekin harremana da, kutsatzeko beldurrarengatik. Ahalegintzen naiz jende berarekin ibiltzen, maskara jantzita izaten eta ahal den guztietan gorde beharreko distantzia errespetatzen saiatzen naiz".



MARIFRAN AIZPURUA

"Niretzat zailena jendearekiko harreman falta da. Orain, norbait ezagutzea ere kosta egiten zaigu. Urrunetik bada, zeresanik ez. Hori hasi da igartzen. Eta ez da beldurrarengatik, baizik eta egoera berriak ekarri dituen zailtasunengatik".

ZIR(R)IKA

P.G. EGIA ABSOLUTUA



PUNTUA



OINATZE SILBETI

Aurrean izango naute

Ezjakintasunak sortutako urduritasunez hasi dut ikasturtea, zetorrenean asko pentsatu gabe.

Irailaren 7an hasi zuten ikasturtea DBH 1. eta 2. mailakoek. "Normaltasun" baten itzalpean. Egunak aurrera joan ahala, lasaitzen noa/goaz. Baina lasaitasun hori haserreak, amorruek ordezkatu zueneko momentua dut gogoan. COVID-19a zela eta, 9 irakasle konfinatuta eta ORDEZKORIK EZ! Neure buruari esaten nion, ez da posible, baina, bai, halaxe zen!

Ikasleak telematikoki etxetik ikasten eta ikasgai batzuk landu gabe, Hezkuntza Sailak ez duelako ordezkorik bidali. A ze inpotentzia! Zerbait egin beharra zegoen, gure seme-alaben hezkuntza bermatzeko. Komunikabideetara jo genuen. Mugikorra irakiten, sutan... Egoera onartezin hark 24 orduko estresa eragin zidan. Baina ahaleginak zerbaitetarako balioko zuelakoan nengo.

Eta horrela izan zen!!! Institutuan ORDEZKOAK izango genituen. Ezin nire poza ezkutatu musukoaren atzetik. Baina, momentu batean amorruek, tristura, poza... dena nahastu zitzaizkidan barruan. "Horrela ibili beharko ote dugu kurtso osoan ikastetxeetan errekurtsioak edo baldintzak izateko? Badirudi baietz. Triste da, baina bai! Nik argi dut: estres puntu horrekin ibili behar badut ibiliko naiz, gure seme-alabei hezkuntza egokia bermatzeko. Ni, behintzat, aurrean izango naute!



JONE BLANCO

"Terrazetan ezin erretzea oso zaila egiten ari zait. Bestela nahiko ondo moldatu naiz. Hori bai, umea zaintzea ere zaila da: umeak dena ukitzen du eta jende askok, gero, umea ukitu egiten du. Uste dut egoera ez dagoela horrela ibiltzeko, baina...".



JOSE AGUSTIN MORO

"Nik beldurrik ez dut; errespetua bai, baina beldurrarekin ezin da bizi. Hala ere, lehen koadrilan sarriago elkartzen ginen, lagun gehiago ere elkartzen ginen. Orain hori aldatu egin da. Bestalde, orain gehiago aukeratzen dugu kanpoan egotea".

Kaletik mendira, bizitoki berriaren bila

Saso batean hutsik geratu ziren baserriak betetzen ari dira azken urteotan. Mendiko bizimoduaren aldeko apustua egin eta baserrira joan dira herritar edo herrira etorritako asko, nahiz eta gehienak baserritik ez bizi.

Testua: **Ubane Madera.**
Argazkiak: **Fernan Oregi eta Ubane Madera.**

Industrializazioaren loraldian, baserritar askok kalerako bidea hartu zuten, bertako zerbitzuak, azpiegiturak eta abantailak lehenetsita.

Orain dela 15-20 urte inguru, berriz, askoren ezusterako hainbat kaletar (gazteak, gehienak) baserrirako bidea hartzen hasi ziren, baserriak mendian bizitzeko ematen zien aukerarengatik.

Orduan joan zirenek mendian segitzen dute, beraz, asmatu zuten, antza, hartutako erabakiarekin. Are gehiago, tantaka-tantaka, mendira joateko joera hori mantentzen ari da, eta herriko baserriek betetzen jarraitzen dute.

Lau bizimodu, guztiak mendian

Datozen orrietan, arrazoi batengatik edo bestearengatik mendiko bizimodua aukeratu zuten hainbat lagunek euren esperientzia partekatu dute.

Lau motako bizi-esperientziak daude jasota: bikote gazte batena; elkarbizitza proiektu komunitarioa gauzatzen ari den lagun-talde batena; kaletik baserrira joan, kaleko lana laga eta baserritik bizi denarena eta erretiroa hartu ondoren mendira bizitzera joan eta betiko ametsa betetzea lortu zuen emakumearena.

Guztiak dira esperientzia desberdinak. Baina guztiak dituzte puntu komunak. Nabarmenena da nahi duten hori egiteko edo nahi duten moduan bizitzeko erabateko askatasuna aurkitu dutela mendian. Bertako lasatasuna ere estimu handian dute, baita mendiak eskaintzen dien naturarekiko gertutasuna eta giro osasuntsua ere.

"Gustura, lasai bizi gara, zoriontsu gara"

LAIDA TELLITU EIZAGA BASERRIA

Laida Tellitu Tejero (Gasteiz, 1985) Eizaga baserrian bizi da 2016tik, Igor Aldazabalekin. Orain dela bost hilabete Izaro alaba izan dute. "Hiru pertsona, txakurra eta hiru asto" bizi dira Sagar Erreka auzoko baserri horretan. Bertan bizi bai, baina ez dira baserritik bizi; irakaslea da Laida eta ingeniaria Igor.

Zelan erabaki zenuten baserrian bizitzea?

Mutila hemengoa da. Non bizi erabaki behar genuen ta Igorren lanetik gertuko zerbait behar genuen. Nik ez nuen nire burua baserrian ikusten. Gasteiztarra naiz, hiriko erratasun eta zerbitzuetara ohituta nengoen. Baina Donostian lanean nenbilela, hango estresarengatik edo, asteburuetan iritsi nintzen hemengo lasaitasuna behar izatera. Eta hori Donostia izugarri gustatzen zaidala! Baina ez da gauza bera bizpahiru egunerako joan edo bertan bizitzea. Hemen etxean sentitzen naiz. Proba egitea erabaki genuen eta bertan segitzen dugu.

Urteak pasata ere, erabakiarekin gustura?

Bai. Gainera, izan berri dugun alabari oso bizi kalitate ona eskainiko diogu hemen. Naturaren erdian dago, animaliak daude, giro osasuntsua... Seme-alabei ahal den onena utzi nahi diegu, eta uste dut hemen hori badagoela.

Zer duzue gustuko?

Erabateko askatasuna, nahi duzun moduan ibil zaitezke. Atea ireki eta kalean gaude. Jendeak kalera irten eta arnastea behar



Igor Aldazabal eta Laida Tellitu, txakurrarekin.

du. Guk hori hemen dugu. Aurten, bereziki, ikusi da pribilegiatuak gabela. (Igor) Gero eta jende gehiagok hartuko luke gustura asko baserria bizitzeko; konfinamenduaren aurretik ere bai, baina orain gehiago. Gustura gaude, lasai bizi gara, zoriontsu gara.

Txarren bat izango du...

Autoa behar duzula denerako. Bestalde, ezezagunak inguruan ibiltzen direnean segurtasun eza sentitu izan dugu. Eta hori bai, lana dauka. Izan etxeko konponketak, izan inguruen zaintza. (Igor) Beti dago lana. Garai batzuk gogorrakoak dira. Udaberria, adibidez. Neurria hartu behar zaio, bestela... Urteotan baserria berritzean zentratu naiz.

Ezusteoren bat izan duzue?

Astoarekin. (Laida) Ez nengoen ohituta animaliekin. Behin,

GERO ETA JENDE
GEHIAGOK HARTUKO
LUKE GUSTURA ASKO
BASERRIA BIZITZEKO

sagarrak batzen nenbilela, atzetik korrika etorri zitzaidan, jolastera. Ni, beldurtu, eta sagarrondora igota egon nintzen Igor etorri arte, astoari makilatxo batekin alde esaten (barre). Bizilagunek abisatu zioten Igorri emaztea zuhaitzera igota zuela (barre).

Kalea faltan igartzen duzu?

Hasieran, kalera jaitsi nahi izaten nuen, trago bat hartzera... Orain berak (Igor) esan behar izaten dit kalera jaisteko. Gainera, ahal dugun guztietan mendi aldera egiten dugu.

Mendian bizi zaretenok auzolanerako ohitura gordetzen duzue, ezta?

Lau baserri gaude aldapan. Ura menditik hartzen dugu.

Konpontzeko beharra dauka azpiegiturak. Auzolanean konpondu dugu. Eta auzoko jaiak guztiok batera antolatzen ditugu...Oso giro polita egoten da, jendea etortzen da...

Guretzat elkartzeko aitzakia da. Ama eta neba ere animatzen dira. Ama jaietan laguntzen ibiltzen da, txosnan, txokolatea banatzen... bikain moldatzen da!

"Ahuntzek duten guztia ematen dute"

NAGORE MARTIN EGOTZA
BASERRIA

Nagore Martin (Eibar, 1978), Egotza baserrian bizi da 2005az geroztik. Lau bizilagun dira han: Nagore, Onar, Aiora eta Izei. 2002an hasi ziren baserri bila. Onarrek nahi zuen, batik bat, Elgoibarren, osabaren baserrian behiekin hazitakoa baitzen. Baina Nagorek ere oso gustuko ditu animaliak eta natura. Kanean bizitzen hasi ziren, baina beti mendira begira. Mendira joan ziren arte.

Baserritik bizitzera edo mendira bizitzera etorri zineten?

Hasieran mendira. Kanean egiten nuen lan. Lursail hau nahiko konplikatu da. Baina ama izatea erabaki nuenean, erabaki nuen seme-alabak nik hazi nahi nituela eta lanbideren bat behar nuela horretarako.

Ahuntzak dituzu; zergatik ahuntzak?

Azkarrak dira, eurekin enpatizatzen da, benetan gustuko dudana animalia da. Ahuntzek duten guztia ematen dizute.

Noiz hasi zinen?

Orain dela 10 urte eta erdi. Umea motxilan nuela Arantzazuko Artzain Eskolara joan nintzen ahuntzak nahi nituela esanez. Hemen esaten zidaten gure lursaila oso zaila zela ezertarako, baina Artzain Eskolan esan zidaten nahi nuena horren argi banuen, aurrera egiteko. Gutxitan ikusten dela zer nahi zuen horren argi duen pertsona bat.

Ahuntz-talde ederra duzu?



Nagore, Onar, Izei eta Aiora, ahuntzekin.

Orain 85 ahuntz ditut, baina batzuk kendu egin behar ditut, 70-75 bat izango ditut, nik 100 ahuntz nahiko nituzke. Espazio eta azpiegitura egokiak ditut horretarako, horregatik egin dut orain lastategia. Gainera, nire lursaila oso egokia da ahuntzentzat, oso aldapatsua da eta (barre).

Badute izenik?

Bai, Egotzan bizi diren animalia guztiek dute izena.

Zure bizimodutik zer duzu gustuko?

Gustuko dut nire lana, familiaren zaintzarekin uztartu dezakedalako. Baina nabarmenduko nuke benetan gustuko dudala produktu erabat artisaua lantzea, goxotasun guztiarekin zaintzen ditudan nire ahuntzen esnearekin egindakoa, inolako gehigarri barik. Bizi garen

BENETAN GUSTUKO
DUDANA DA PRODUKTU
ERABAT ARTISAUA
LANTZEA

sasioan nahiko gaitza da produktu naturalak aurkitzea.

Eta lan aldetik, zelan?

Noski, beti nago lanean, baina egiten dudana gustuko dut. Gustatuko litzaidake noizbehinka asteburu-pasa joan ahal izatea, hori bai, baina hori ere iritsiko da. Hala ere, ondo antolatuta, udan, behin baino gehiagotan, kostaldera joateko bizpahiru egun hartzen ditugu.

Gazta egiten duzu eta haren kanpaina bukatzean, ahuntzen erditzeekin hasten zara; hemen ez dago atsedunik?

Ez, lan handia egiten da. Egunero 06:00etan hasita, erditzeak daudenean, 04:00etan. Baina egun guztiak ez dira berdinak. Lasaiagoak ere badaude. Lasaiagoetan aprobetxatzen dut seme-alabekin norabait joateko, etxea garbitzeko... Umeak hemen, oraingoz behintzat, pozik bizi dira. Aske sentitzen dira. Pentsa, alabak 8 urterekin esan zidan Olentzerori eskatu behar ziola niri erditzeetan laguntzeko buzoa.

"Komunitatean bizi nahi genuen"

AZALIATXO PROIEKTUA AZALEATXO

Euren ametsa bizi nahi dute. Bizitokia mendian izateak aukera hobea eskaintzen die horretarako. Orain dela 12 urte, Azaliatxo proiektua abiarazi zuten Edurne Unamunok (Soraluze, 1978), Oier Zubizarretak (Soraluze, 1976), Olaia Blancok (Eibar, 1981) eta Irati Trebiñok (Soraluze, 1978). Urteotan pertsona berriak gehitzen joan dira taldera; umeak jaio dira: Urko Trebiño (Soraluze, 2010) eta Aran Trebiño (Soraluze, 2014) eta Gorka Arrizabalaga (Azpeitia, 1980) gehitu da proiektura. Orain, Edurne, Olaia, Oier eta David Peñalba (Soraluze, 1982) bizi dira Azaliatxon.

Zer da Azaliatxo proiektua?

Elkarbizitza proiektua. Bikotekidearekin, familia nuklearrean edo bakarka baino, lagun artean bizi nahi genuen, komunitatean, naturarekin bat eta ahalik eta modurik autogestionatuenean. Ekonomia konpartitua dugu. Eta dena modu horizontalean erabakitzen ahalegintzen gara. **Etxea zuek eraiki duzue...**

Bai, lagun askoren laguntzarekin, auzolan barik ez genuke eraikiko. 10 urte eman dugu eraikitzen. Lastozkoa da. **12 urte hemen. Kaletarrak guztiak. Ez duzue faltan igartzen kalean bizitzea?**

Kalean bizitzea ez, baina kaletarrak gara eta han bizitza egiten segitzen dugu. Ez gaude bakarrik mendian. Taldea gara eta inguruan jendea dago, hori ere garrantzitsua da. Ni (Oier)



Oier Ariznabarreta, Edurne Unamuno, Olaia Blanco eta Brida txakurra.

kalean sarri egoten naiz. Mendiak beste arnagune bat ematen digu, baina kalea gertu dugu. Mendian bizitzeak lasaitasun handia ere ematen du (Edurne), eta lurrarekin kontaktu zuzena izateko aukera, animaliak ikustekoa... Eta abantaila handiak konfinamenduan.

Zerbait txarra izango du...

Bidea, eskasa da eta oso egoera kaskarrean dago. Autoarekiko mendekotasun handia ere eragiten du. Konturatu gara gasolina asko gastatzen dugula.

Apur bat gogorra ere izan daiteke hemen bizitzea, bakardadea, iluntasuna...

Iluntasunera ohitu beharra dago. Niri (Edurne) iluntasunak ez dit beldurrik ematen, baina egia da txakurra izateak segurtasuna ematen dizula.

NATURAREKIN BAT ETA
AHALIK ETA MODURIK
AUTOGESTIONATUENEAN
BIZI GARA HEMEN

Hala ere, urteekin, mendiko zaratak-eta ezagutzen zoaz.

Eta lan aldetik?

Beti dago zer egina. Orain arte, eraikuntzara begira egon gara, baina hori bukatu dugunean, ingurua lantzen hasi gara: lurra, fruta-arbolak... Lanak banatzen ditugu, bakoitzak bere zereginak eta ardurak ditu. Noizean behin, talde osoa elkartu eta lan handienak elkarrekin egiten ditugu.

Zelan egiten duzue zuen bizimoduak ondo funtzionatzeko?

Batzarrak egiten ditugu. Astean behin batzarra egiten dugu lanak banatzeko eta hilean behin beste bat. Bigarren horretan denon eta norbere intereseko gaiak lantzen ditugu: ekonomia, harremanak, emozioak, gatazken kudeaketa... Bestalde, proiektu komuna dugu, helburu bera, eta horrek laguntzen digu elkarrekin egoten. Kanpoko laguntza ere izan dugu, bide-laguntzaile batena. Harremanak zaintzea da zailena eta hori landu beharra dago.

"Hemen, egun bakoitza opari bat da"

MARI CARMEN PEREZ EIZAGIRRE-ETXETXO

Mari Carmen Perez (Eibar, 1953), Eizagirre-Etxetxon bizi da 2015etik. Erretiratu ondoren joan zen mendira bizitzera. Hasieran bakarrik. Ekainetik, ama hil zitzaionetik, Ramon Perez aitarekin. Eziagirre-Etxetxon ametsa bete du: mendian bizitzea. "Beti sentitu naiz ondo naturan". Seme-alabak txikiak zirela, Mutrikuko kanpinean karabana ipini eta han pasatzen zituzten asteburuak. Orain, ja nagusitan, bide bera segitu nahi izan du, baina betiko.

Zergatik duzu horren gustuko mendia?

Libre sentitzen naiz, nire habitatean nagoela sentitzen dut, ondo egiten dit eta beti nahi izan dudana da. Seme-alabak ikasten eta neu lanean nenbilela, zaila zen, baina erretiratu nintzenean, argi izan nuen. Hala ere, ezta nire ametsik onenean ere ez nuen imajinatu hemen bizitzea. Eizagirre-Etxetxok gairiditu egin du espero nuena. Naturan etxetxo bat izateko ametsari ez nion sekula ere laga, baina denbora batez Burgosen, Orduñako mendatetik 10 kilometrotara txabolatxo bat besterik ezin izan nuen lortu.

Burgosen zelan?

Oso ondo. Asteburutan bakarrik joaten nintzen, baina benetan gustuko nuen. Lanean nenbilen eta gogoan dut zelan egoten nintzen barikuak noiz iritsiko, nahiz eta hara joateko bidea zaila izan: mendatean beti behe-lainoa, elurteak...



Ramon Perez eta Mari Carmen Perez Eizagirre-Etxetxon.

Gainera, ez dut batere gustuko gidatzea. Azkenean honako hau irten zitzaidan. Bi familiaren arteko proiektua izan behar zena bakarrean geratu zen. Baserri zaharra zaharberritzea oso garestia zen; azkenean, proiektua aldatu eta etxetxo txiki baina argitsu hau da emaitza, justu nahi nuena. Egia esan, ez zen erraza izan, zalantzak ere izan nituen, baina hementxe dago. Bestalde, ez naiz baserriatik bizi; horretarako nire sasoia joan da, bestelako gauza batzuetan inbertitzen dut denbora. Hala ere, aitak gustuko du lurra, beraz, ortutxo bat egiteko proiektua dugu.

Erretiratu ondoren etorri zara; eibartarra. Igartzen duzu faltan kalea?

Ezta gutxiago ere. Klean bizi nintzenean, mendira etortzea besterik ez nuen nahi eta sarri

etortzen nintzen. Orain hemen nago. Honek ez du preziorik. Egun bakoitza opari bat da. Ez dut kalea faltan igartzen, baina behar edo nahi dudanean nire autotxoan jaisten naiz, orain aitarekin ere jaisten naiz, nahiz eta gutxiagotan jaitsi. Gainera, sekula ez zaizkit bisitak falta.

Ez du ezer txarrik?

Lan handia du. Baina hori ere neurtu egin daiteke. Ez naiz obsesionatuko, beraz, gogoen eta beharren arabera ezartzen ditut lehentasunak. Bizimodu aldaketa ederra izan da, baina aldi berean, egokitzapen handia behar da. Bestalde, autoa denerako behar da, baina ez zait inporta. Igotzeari eta jaisteari esker ez zait gidatzea ahaztuko! Badakit nire adinarekin mendian bizitzeko erabakia jende askok ez duela ulertzen. Bestalde, gazte asko dago, ume txikiak dituztenak, naturan bizi nahiko lukete, baina zailtasun larregi dituzte. Ondo legoke euren ametsak betetzeko laguntzaren bat izango balute, nagusiegiak izan aurretik.

JENDE ASKOK EZ DU
ULERTZEN MENDIAN
BIZITZEKO NIRE
ERABAKIA

Jatearen plazerna, bertatik bertara



Batzoki

eguziko menua
astoburuzatzi
karta eta menuak

opiatarrak eta
hamburgerak
entzuga bereziak

Basila eta
laga ardo
buzkarak

Erretelak 943 75 20 35



IZZGUIRRE
Igeltseritza

Erakiri berriak • Kalitateko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltseritza

30 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 967 209

Kontulan 

aholkularitza
ABOKATUAK

Erreforma zitargorak • Administrazio lanak
Tratamendu buroirak • Lan-arloko aholkularitza
Erreforma kontabilitate/ideologikoa • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era. 20590 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



KM design

KITIA MUNTATZAN

943 76 99 85

kaumuntatza@yahoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Ardiaga 5
BERGARA

- Diseinu eta Fabrikazio lanak
- Sukalderak
- Horma-oinarriak
- Logelak
- Zoruak
- Atakak...

■ Arotzeria lanak oro har

■ Instalazioak

Hortz klinika

Erretel 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.E. 48 000 591

Katia Guzmán
Odontologoa
K.E. 48 001 541

27 urteko esperientzia
odontologia, protesiak,
odontopediatria, ortodontia,
implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko orokorra (3D):
ekianena, orto eta tele.



MGS 

Seguros

Santa Ana 13 - Tel. 943 75 14 57

Astelehenetik ostiralera:
09:30 - 12:30 eta 15:30 - 20:00

Larunbatak:
09:30 - 13:00

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zura-gutako hortz klinika,
puntu-puntu teknologikoki lan
egiten dugu. Cal-Cam sistema
bertuteko erabilien dugu.

Elizburu, 3 behe
SORLUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
9:00 - 11:00 eta 14:00 - 20:00



KLB6

Kalebarran 6
943 67 74 28
Mugur-eta-rentan
MODAGUTIA

Facebook: [klob6](#)

BSB **Papa Jume** **ISOLID** **AB**
VERO MODA **ESKICH** new balance



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

 arnuta
dekoratiboko
ingurugilea

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

MABEL
ILE-PAINDEGIA

- Berruntzako keratina
tratamendua
- Deglazioa
- Re-estruturak gabeko
permanentea
- Makilajea
- Manikura
entzaurukorra
- Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89



Carpinteria
MANU
Aroztegia

Atakak
Bostakak
Portakak
Sukalderak
Tafetak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitarriak,
ogitarriak,
pizak,
gosaia...

Erretelak egiten dira
Tel. 943 75 17 89



MENDIZABAL
okindegia

Ogla - Prentza - Gosariak

Astelehenetik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99





FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Dilal)
fogasleriturgintza@gmail.com

Euskalzaletasunaren alde:



Kirol talde ia guztiak abian

Herriko kirol talde gehienek urrian abiaraziko dute jarduera fisikoa, pandemia dela-eta ezarritako protokoloek eta ezaugarriek baldintzatuta bada ere; hori bai, inork ez du partidurik jokatuko

Kontaktua fisiko barik, aldagelak erabili barik, talde txikietan, gurasoen presentzia barik, eta bestelako segurtasun eta higiene neurriak zorrotz errespetatuta, urrian abiaraziko dute ikasturtea herriko kirol talde gehienek. Hori bai, eskola mailan, inork ezin izango du partidurik jokatu, urtarrilera arte behintzat.

Eskola kirola

Eskola kirolari dagokionez, irizpidea da "ahal bada" aurrera egitea. Edozelan ere, behin betiko erabakia hartzeko, batzarra egingo dute kirol batzordeko ordezkariak, guraso elkarteko ordezkariak, eskolako ordezkariak eta umeekin

diharduten kirol elkarteko ordezkariak. Martitzenean dute hitzordua, 19:00etan, kiroldegian.

Futbola eta hockeya

Sorako Futbol Eskolak, berriz, iragarri du urrian entrenamenduekin hasteko asmoa duela. Oraingoan, 60 ume pasatxok eman dute izena futbol eskolan.

ESKOLA MAILAKO KIROLEAN, DEBEKATUTA DAGO URTARRILERA ARTE PARTIDUAK JOKATZEA

Bestalde, Marras Hockey Taldean 2012-2007 bitarteko jokalariekin hasiko dira entrenatzen. Momentuz, 40 ume inguruk eman du izena; hala ere, datozen egunetan izena emateko aukera zabalduko dute.

Errugbia eta pilota

Errugbi taldea, berriz, urriaren 7an hasiko da entrenatzen. Irailaren 30ean, eguaztena, gurasoei azalduko dizkiete aurtengo ezaugarri bereziak Herriko Antzokian egingo duten batzarrean (18:30). Oraingoan, 17 bat ume eta 11 guraso animatu dira, baina ateak zabalik dituzte nahi duten guztientzat. Batzarrera joan eta izena eman besterik ez dago. Azpimarratu dute herritarren eta saltokien laguntzari esker material berria erosi dutela errugbi jarduera beharrezko segurtasun neurri guztiekin egiteko.

Azkenik, Soraluze Pilota Elkarteak beharrezkoa prestatzen ari da urrian entrenatzen hasi ahal izateko. Guztia gertu dutenean zabalduko dute izen-ematea eta gurasoekin batzarra egingo dute.

Gipuzkoako Finalista Eguna ez da Soraluzen egingo

Gipuzkoako Finalista Eguna Soraluzen ospatzekoa zen. Baina bizi dugun egoera dela eta, herriko mendi taldeak ez du bideragarri ikusten horrenbeste mendizale hemen elkartzea. Mendi Federazioari proposatu dio norbere herrian ospatzea. Soraluzen, urriaren 18an, mendi buelta egingo dute Diputazioak mendirako prestatuko protokoloa probatzeko.



Mendizale gazteak Soraluzeko Finalista egunean, iaz.

Txistu kontzertua zapatuan

Bilboko Hamaika Buru Txistu Elkarteko txistulariek kontzertua eskainiko dute antzokian.

Bilbao Musika Eskolako ikasleek eta Bizkaiko hainbat herritako txistulariek osatutako Hamaika Buru Txistu Elkarteko musikariek eskainiko dute kontzertua zapatuan, baina herriko bi txistulari ere izango dira tartean: Edurne Orbea eta Domentx Uzin. Txistulariekin batera, Leire de Diego piano-joleak eta German Ereña atabalariak ere parte hartuko dute. Zuzendari lanetan, berriz, Jasone Akizu ondarrutarrak jardungo du eta aipatzekoa da Akizuk lotura berezia daukala Plazentziarekin, ama plazentziatarra baitauka.

Boleroa, baltsa...

Kontzertuan hainbat estilotako piezak joko dituzte: Sabin Bikandiren La bajera (boleroa), Don Martin (Baltsa), Edurne



Hamaika Buruko txistulariak.

(Mazurka), Aitor Furundarenaren Aitona Txomin (birilketa), Jose Ignacio Ansorenaren Ametsetan (Ekain Basterretxea bakarlarri dela) eta beste hainbat.

Kontzertua 19:30ean hasiko da eta sarrera debaldekoa izango da.

Helduentzako bertso tailerra egingo da urritik abendura bitartean

Bertsotan egin edo bertsolaritzara gerturatzeko interesa duten herritarrei zuzenduta, bertso tailerra antolatu dute herrian. Urriaren 13an hasi eta abenduaren 18ra bitartean 8 saio eskainiko dituzte "bertsoekin ondo pasatzea eta zerbait ikastea" helburu hartuta. Saioetan, bertsolaritza eta

bertsogintzaren lotutako hainbat gai landuko dituzte eta plazako gonbidatu berezi bat ere etorriko da bisitan. Izena emateko gutxieneko adina 16 urtekoa da eta ez da behar inolako ezagutzarik. Matrikula 20 eurokoa izango da. Informazioa: soraluzekobe@gmail.com emailen edo 943753043 telefonoan.

Irakurri, Gozatu eta Oparitu

Udaberrian egitekoa zen Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa urriaren 13an hasi eta abenduaren 9ra bitartean egingo da. Irakurleek euskarazko liburuak hartu ahalko dituzte liburutegian, irakurri ostean fitxa bete eta oparitu nahi duen liburuaren izena ipinita, euskarazko 500 libururen zozketan parte hartuko du.



Kanpainaren irudia.

Birakaren dantza eskolak

Biraka Dantza Elkaratek urrian hasiko ditu dantza garaikidean trebatzeko eskolak, kiroldegian, gimnasio berriaren ondoko gelan. Uda aurretik 55 ikaslek zuten izena emanda eta orain, aurrera egin nahi duten taldeekin hasiko dute ikasturtea. COVID-19a dela eta neurri bereziak hartuko dituzte osasuna zaintzeko.



GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAHAK
MAINTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZURTAGIRIAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

“Bizitzan ikasten jarraitzearen leloaz zer?”

ARANTZA SALTERIAN ELORRIOTIK SORALUZETA



Arantza Salterian Marzana (Elorrio, 1960) magisteritza ikasitakoa da eta urte asko daramatza irakasle lanetan, haur hezuntzan lehenik eta helduen irakaskuntzan gero. Aurten, Soralezeko HHI-EPAko zentroan jardungo du irakasle.

Zela bizi izan duzu konfinamendua?

Ba, beitu. Niri lasaitasuna ekarri dit. Eguneroko premiak ez izatea asko gustatu zait: zer jantziko dut gaur? nora joango naiz? Ezer ez, etxean. Lorak ipini, lorei begiratu... Kaleko isiltasun hori. Bizilagunekin berbetan balkoitik... Orain ulertzen dut nire ama zela egoten zen baserrian poz-pozik.

Irakaskuntza zela ikusten duzu?

Disgustoa hartu dut ezer aldatu ez dela ikusita. Nire ustez oraintxe zen hezkuntzari goitik beherako buelta bat emateko momentua. Hainbeste ordu eta

holako ume aparkalekurik ez dugula behar ikusteko... Baina gauza naturalekin lotura izatera jo beharrean, ez dakit nongo estratosferara jo dugu. Gezur handi batean bizi gara, enperadorearen trajearen ipuinean bezala. Umeek behar dutena da maitasuna eta afektibitatea.

Eta helduen irakaskuntza?

Nik uste dut Jaurlaritzari ez zaiola interesatzen helduen irakaskuntzarik eta poliki-poliki murrizten ari direla. Beti aldarrikatu da bizitzan ikasten jarraitzearen leloa, eta orain?

Soraluzez zer esango zenuke?

Nire lagun batek dioen moduan: "kaixolie zatarra, baina txorixek ederrak".

Zuk kantaldiak ere ematen dituzu?

Bai, nire bikote Pantxorekin batera, hego ameriketako kantak eta euskarazkoak ere jotzen ditugu.

1. Arantza HHiko gelan.
2. Bi ikaslerekin.
3. Aretxabaletan, Pantxo gitarrajole eta Nika biolinjolearekin.

Amazig herria

MUSTAPHA BEN SORALUZETARRAREN TESTIGANTZA

TESTUA EGOITZ UNAMUNO
ARGAZKIA: AITZIBER MAYO.

Mustapha Ben (1984, Errachidia-Maroko) hamaika anai-arrebako familia bateko seme gazteena da. Hemezortzi urterekin atera zen bere herritik. Muga ahal bezala zeharkatu eta Europara etorri zen, “askatasun bila”. Lehenik, Bartzelonan eman zituen urte batzuk, gero Bilbon, eta azkenik, 2009an, Soraluzera iritsi zen, “kasualitatez, lagun batek etxea konpartitzeko eskaintza egin zidan eta baiezkoa eman nion”. Soraluzen ezagutu zuen gaur egun emazte duen Fatima, eta bi alaba izan dituzte elkarrekin: Sara eta Arinas. Amazigak dira, Ait Ata leinukoak, “Soraluzen bizi diren beste marokoar gehienak bezala”.

“Amazigak gara”

Amazig herria Afrika iparraldeko hainbat estatutan banatuta dauden milioika pertsonak (50 milioi inguru) osatzen dute eta bere hizkuntza eta kultura propioak ditu.

Munduan ezagunagoak dira bereber izenez, baina eurak nahiago dute amazig terminoa, eurak bere burua izendatzeko erabili izan dutena; “gizon askea” esan nahi duena.

“Hemen jende askok uste du herrian gauden marokoar denak arabiarrek eta musulmanak garela, baina hori



Mustapha, Arinas, Sara eta Fatima, atzean amazig herriaren bandera dutela.

ez da horrela, gehienak amazigak gara eta ez arabiarrek. Kontua da gure artean askok ez dutela amazig direnaren kontzientziarik eta horrek zaildu egiten du hemengo jendeak amazig herria ezagutzea”, dio Mustaphak.

Azaldu duenez, VII. mendean herrialde arabiarrek Afrika

iparraldeko lurrak konkistatu zituzten eta ordutik arabizazioa jasan behar izan dute. “Gainera, bereziki Frantziak (XX. mendean Maroko kolonia gisa izan zuenak), indar handia egin du Maroko arabizatzeo eta kanpora begira arabiar irudia proiektatzeko”. Amazigek, ordea, kultura eta balore

propioak dituzte: “hizkuntza, alfabetoa, geure egutegi eta ospakizun propioak, janzkera, gastronomia, erlijio ugaritasuna, emakumeenganako errespetua... Gure herria bakezalea da, bere identitatea mantentzeko borrokan diharduena”.

Amazigera eta dariya

Marokoa nagusiki bi hizkuntza hitz egiten dituzte: amazigera eta dariya. Bigarren hau, hizkuntza askoren arteko nahasketatik (amazigera, arabiera, frantsesa eta espanyola) sortu den ahozko hizkera da: “Dariya erabiltzen dugu lurralde ezberdinetako jendearen artean hitz egiteko. Askok esaten dute arabiera dela, baina oinarri nagusia amazigera da. Arabiera jasoa

**MUNDUAN
EZAGUNAGOAK DIRA
BEREBER IZENEZ,
BAINA EURAK NAHIAGO
DUTE AMAZIG**

**"FRANTZIAK AHALEGIN
HANDIA EGIN DU
MAROKO ARABIZATU
ETA ARABIAR IRUDIA
PROIEKTATZEKO"**



Marokora egindako bisita batean, Ouarzazaten.

eskolan ikasi dutenek bakarrik dakite, oso gutxi”. Amazigak, berriz, ez du aldaera bateraturik eta aldaera bat baino gehiago ditu, lurralde bakoitzean berea. Mustaphak amazigeraz berba egiten die alabei, “Marokora doazenean amonarekin eta gainerakoekin komunikatu ahal izan daitezten”. Herrikide askok ez omen dute hori begi onez ikusten. “90. hamarkadara arte, gure hizkuntza mendikoa eta baserritarrena zela esaten ziguten. Errepresioa ere handia izan da eta horrek arrasto sakona laga du. Zorionez hori aldatzen ari da. Esaterako, 2015etik amazigera hizkuntza koofiziala da Marokon eta eskola batzuetan irakasten ere hasi dira”.

Gero eta ezagunago

Mustapharen esanetan internetek eta sare sozialek bultzada handia eman diote amazig herriari: “Internetek aukera eman digu Herrialde ezberdinetako herrikideon artean harremantzeko eta informazioa trukatzeko, horrela geure historia ezagutzeko, herri-identitateaz kotzientzia

hartzeko eta geure herriaren historia ezagutzeko. Ni neu interneti esker ari naiz alfabetoa ikasten”. Etorkizunari begira itxaropentsu da: “Amazig kultura gero eta ezagunagoa da munduan eta indartsuagoa ere bai. 1997an herrialde guztietako amazigak batu gintuen mundu mailako lehen kongresua egin genuen eta gure ametsa etorkizunean amazig herrien estatu batuak sortzea da, demokrazian biziko dena, libre, bere lur eta aberastasunen jabe”.

**Esker on
mezua**

Mustaphak mezua idatzi du amazigera idazteko erabiltzen duen tiffinagh alfabetoan:

ⵜⴰⴷⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ
ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ
ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ
ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ ⵜⴰⴳⵍⵓⴷⴰ

(Eskerrik asko laguntzen diguzuen guztioi)

ZORION AGURRAK



Markel Atxotegi Arruabarrena
Irailaren 17an, urte bat. ZORIONAK etxeko txikixari! Urtetxo bat ia gurekin! Patxo haundi bat etxeko danon partez!!



Julen Aristi Sanchez
Irailaren 5ean, bi urte. Zorionak potxolo !!! Bi urtetxo ia !! Jarraitxu geure bizitzak alaitzen !! Muxu pillo bat etxekuen partez !




Mari Luz Martín Alonso
Irailaren 13an, 70 urte. Zorionak Amama!!!! Muxu pilo bat batez be Nora, Nahia eta Julenen partez!! Askok maitxe zaitzugu!



Peru Soriano Sebal
Irailaren 27an, 4 urte. Zorionak gure maitxia! Ze haundixa in zaran. Pila bat maitxe zaitzugu, bihurritxo!



Maren eta Sara
Irailaren 25ean, 7 urte eta abuztuaren 21ean, 3 urte. Zorionak, gure etxeko bi sorgintxoei. Mila esker!



Jokin Muñoz Olazabal
Irailaren 25ean. Zorionak aitaxo!! Jarraitxu orain arte bezela. Askok maitxe zaitzugu, Sara eta Julen



Ander Pastoriza
Irailak 21ean, 16 urte. Zorionak! Lagunen partez.



Mikel Leunda
Irailaren 29an, 51 urte. Zorionak! Lagunen partez.



Iñaki Larrañaga
Irailaren 7an, 53 urte. Zorionak etxekuen partez!!!



Suar
Abuztuaren 4an, 9 urte. Zorionak txapeldun! Gure irrifarrea zara!



Aiora
Abuztuaren 7an, 39 urte. Beti izan zara gure zoriontasuna. Zorionak!!!



ESKELAK

ESKELA

**Arantzazu Amasorrain
Linacisoro**

2020ko uztailaren 9an hil zen, 71 urte zituela.

Maitasuna egunero ospatzen delako,
Maite zaitugu.
Eskerrik asko, ama.

Babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztiei, eskerrik
asko bihotzez.

Sendia

ESKELA

**Javier Mendizabal
Oregi**

2020ko ekainaren 19an hil zen 69 urte zituela.

Mendi, Javier, aitxa, aitzitxa egunero zaitxugu gogoan.

Eskerrik asko une latzetan ondoan izan zintuztegun guztioi.

Sendia

ESKELA

**Satur Gil Bermejo
"Charli"**

Uztailaren 31n hil zen, 78 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.

Etxekoak

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK**Hildakoak**

Saturnino Gil Bermejo
Maria Luisa Lusares Alonso
Carmen Puga Estevez
Maria Angeles Viteri Arrese
Joaquin Navarraz Torrano
Alodina Ballesteros Fidalgo
Ignacio Oruesagasti Etxeberria

Jaiotakoak

Ez da izan jaiotakorik

**EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**



**Ikasi hizkuntzak eta eskuratu
ziurtagiri ofizialak**

Alemana, Euskara,
Frantsesa eta Ingelesa
A1 A2 B1 B2.1 B2.2 C1

Ikastaro erdipresentzialak
ere baditugu
Moodle plataforma erabiliz



Matrikula zabalik Irailaren 28ra arte · Ikasturte osoa 72,36€ · 943 89 92 75

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta
ikas dezazun nahi du.

UN/A PROFESOR/A DE AEK VALE POR DOS.

Sabe enseñar y
quiere que aprendas.

aek
euskara praktikoa

Janire Urrestarazu Aizpurua, AEK-ko irakaslea.



EUSKARA - IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Mintzapraktika



Barnetegiak



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Online

**DOAN
GRATIS**

Gaunditzen baduzu
Si apruebas

Matrikula-epea irailaren 30era arte · Plazo de matrícula hasta el 30 de septiembre
Baltegieta 2 · 943 75 14 34 · soraluze@aek.eus

Eman izena
Matricúlate

- HABEk homologatutako euskaltegiak
Euskaltegis homologados por HABE
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
Cursos de preparación de exámenes oficiales

www.aek.eus
673 200 100 · 946 464 000

